



**KILI-KILI**

**EGITASMOAREN AURKEZPENA  
ETA  
LEHIAKETAREN OINARRIAK**

## **IRATXOAK EGITASMO OROKORRA. HAURREI ISTORIOAK KONTATZEKO MODU BERRI BAT**

---

Proiektu hau, haur eta lehen hezkuntzako haurrei zuzentzen zaie. Gure xede publikoa, oso belaunaldi teknologikoa da. Gailu elektronikoetara ohituta daude eta smartphoneak, smartv-ak, tabletak, etab. ondo baino hobeto kontrolatzen dituzte. Argazkiak tablet edo mugikorretan erabiltzen dituzte eta atzamarrak eduki batetik bestera igarotzen dira, jokoetan aukera anitzak lantzen dituzte uneoro. Etengabe aukeratzen egon nahi dute.

Behar berri hauetara egokituz aurkezten dugun proiektua interaktiboa edo elkarreragilea izango da. Beste era batera esanda, ikusleek erabakiko dute istorioak nola egingo duen aurrera, ze bidegurutze hartuko ditugun edo noiz eta non bukatzen den abentura.

“Iratxoak” baloreetan oinarritutako marrazkien proiektu elkarreragilea da eta funtsean natura eta inguruarekiko errespetua era erakargarri batean sustatu nahi ditu. Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan zehaztutako helburuekin bat datozen gaiak jorratzea du asmo. Abentura ludiko eta pedagogikoa da.

Proiektu honen lantaldea ez da berria, Betizu, Sorgintxulo edo Hirutxulo proiektuen sortzaile eta produktoreak daude atzean.

## **IRATXOAK ETA ZUHAITZAK. ALDERDI PEDAGOGIKOA.**

---

Haurrak ile eta lumadun animalien bizitzaren bidez naturara hurbiltzea ez da horren zaila. Baina haurrei landareekiko interesa piztea zailagoa da. A priori, ez dago animalien munduan hauteman daitekeen sentiberatasunari lotutako misteriorik. Landareak ez dira mugitzen, ez dute erreakzionatzen. Hala ere, landareek funtsezko papera jokatzen dute Lurreko bizitzaren euskarri gisa. Hori dela eta, funtsezkoa da haurrei landare-bizitza estimatzen laguntzea, landareek beren bizitzarako eta inguruko osasunerako duten garrantzia ulertzen laguntzea.

Animalien eta landareen arteko interakzioa abiapuntu egokia da haurrak landareen munduaz interesatzeko. Landare-mundura gerturatzea, zentzumenez eta jolasez, gainditu gabeko gaia da gure gizartean. Horregatik, proiektuak iratxoak zuhaitzekin edo landareekin lotzen ditu. Horrela, haurrek zuzenago hauteman dezakete zuhaitz bakoitzak duen bizitza. Landareak bizirik daudela ulertuko du, hazi, eraldatu, ugaltu eta hil egiten direla.

Iratxo bat jaiotzen da zuhaitz bat landatzen den bakoitzean. Eta zuhaitzak beharrezkoak dira klima-aldaketaren alde borrokatzen direlako, gizakiok arnasten dugun airea garbitzen dutelako, oxigenoa ematen digutelako, energia gordetzen dutelako, uraren kutsadura prebenitzen laguntzen dutelako, janaria ematen digutelako eta, oro har, gure osasunerako onuragarria den lana egiten dutelako.

## **GENERO IKUSPEGIA, BERDINTASUNA ETA EKITATEA**

---

Egitasmoak, urteetan zehar genero zehatzei esleitu zaizkien rol tradizionalak apurtzeko nahia du, berdintasuna era natural batean jorratuz. Izatez, Iratxoek, genero bereizketarik egiten ez den unibertso bat dute. Beren ezaugarriak jaio diren zuhaitzetik hartzen dituzte, eta berdin-berdin izango dituzte ezaugarri edo ahalmen hoiek neska zein mutil izan. Are gehiago, zuhaitzek ez dute generorik, iratxoek ere ez. Lehen ikustaldi batean, gizonezko eta emakumezko iratxoak daudela pentsa dezake ikusleak. Zergatik ordea? Arroparerengatik? Ahotsarengatik? Eztabaida sakonerako eman dezake honek.

Pertsonaia bakoitza epaitzeko erabiltzen den berdintasuna eta ekitatea dira proiektuaren beste ezaugarrietako bat.

## **ZERGATIK KILI-KILI?**

---

Azken bi urte hauetan emozioei, sentimentuei eta besteekiko harremanei dagokionez bolada gogorra pasatu dugu. COVID 19aren eraginei aurre egiteko neurri garrantzitsuenetakoa zuzeneko kontaktu eta interakzioak ekidetzea izan da. Orain, bi urte beranduago, eta segurtasun neurriek beste errealitate batera eraman gaituzten honetan, kontaktuak berreskuratzeko unea iritsi dela esaten dute adituek. Kili-kilik horretaz hitz egiten du: barruan izan ditugun sentimentu eta emozio horiek kaleratzeaz, gure aurpegietan ikus daitezkeen irribarreak irudikatzeaz, besarkatzeaz.

# PERTSONAIEN DESKRIBAPENAK

## MITHY

Iratxo gorri bat da, haritz batetik datorrena. Haritza indarraren zuhaitza da. Eta Mithyk ezin hobeto erantzuten dio definizio horri. Naturaren iratxo sendoa da, ausarta, indartsua, independentea, sentibera, oinak lurrean ondo jarriak dituena, haritzaren sustraiak bezala. Ekintza gustatzen zaio. Iniziatibadun pertsonaia da, gaztea, baikorra, ausarta, ameslaria, borrokalaria eta abenturazalea.

Arra bat besterik ez du neurtzen, 18 zm-ko altuera edo, jaka gorri bat eta txano bitxi bat janzten ditu, nondik hosto gorri batzuk sortzen diren, bizi den zuhaitzaren hosto berberak. Bere zuhaitzari oso lotuta dago, bat dira eta berari gertatzen zaion guztia beretzat sentitzen du. Lagundu eta babestu egiten du, bizi-zikloa egunez-egun, urtaroz-urtaro, urtez-urte osatu dadin.

Abentura bila dabilen esploratzaile sutsua da, horregatik leku berezi asko ezagutzen ditu.



## LIZ

Iratxo laranja bat da, lizar basati batetik datorrena. Iratxo basati on legez, ez da ezerren beldur. Hegal txiki batzuk ditu, airean altxatu eta hegan egin ahal izateko.

Liz arduratsua, azkarra, dotorea, zentzuduna, abenturazalea, sarkastika, errebeldea eta bazilatzailea da. Abenturaren batean laguntzeko eta hegaldiari ekiteko prest dago beti. Airean gora egiteko duen trebetasun horrek perspektiba ezin hobea ematen dio gauzak beste era batera begiratzeko.

Bere ezaugarri nagusia hegan egiteko erabil ditzakeen bi hegaltxoak dira, lizarraren hostoak gogorarazten dituzte. Hegan egiteko aukera horrek abantaila handia ematen dio bere zuhaitzaren zaintzan egunerokotasunari aurre egiteko. Ausarta, kalkulatzailea eta oso azkarra da. Bere adimenak eta hegan egiteko ahalmenak iratxoen komunitatean funtsezko pieza bihurtzen dute.

Bere sormen tailerlean era guztietako gauzak sortzen ditu: experimentuak, eskulanak, sukaldaritza, botanika, marrazkigintza...



## HUR

Iratxo urdin-horixka, gazte eta txikia da, bananondo batetik datorrena. Xarmagarria da, positibista, zintzoa eta justiziaren zentzu zehatza duena. Horregatik da iratxo jakintsuaren ikaslea. Egia esan, inork ez zuen aukeratu, bere zuhaitza, soilik, iratxo jakintsuaren izei handiaren itzalpean ernatu zen, eta Hur, bere patua, iratxo jakintsu zaharra ordezkatzeko dela konbentzitu da.

Botereak dituela uste du, baina nahiko baldarra denez, batzuetan dibertigarria da, beste batzuetan gogaikarria. Traketsa, umore onekoa, alaia, bihurria, gaztea, barregarria, energiak beterikoa, xelebrea, abenturazalea, ausarta eta ameslaria.

Iratxo potolo bat da eta taldearen batez bestekoa baino pixka bat baxuagoa. Ameslaria da eta oso erraz ilusionatzen da. Handitan argi dauka zer izan nahi duen: iratxo jakintsu. "Lehen urteko" ikaslea da oraindik, eta denbora luzea beharko duela dirudi. Dena ematen du egiten duen ekintza bakoitzean, batez ere lehenengo 10 segundoetan, konstantzia ez da bere armarik onena. Atsegin du alferkerian ibiltzea eta ezer egin gabe egun osoa pasatzea. Gose handia du. Baldar maitagarria da, baina azkenean istiluetan sartzen da, eta are okerragoa dena, besteak sartzen ditu.



## PINTXO

Iratxo berde bat da, kaktusetik datorrena (echinocactus). Indibidualista eta punkia da. Kaktus iratxo on bezala, arantzez inguratuta dago. Bere burua babesteko, berak dioen bezala. Umoretsua eta zirikatzailea da. Urduri jartzen denean, globo batean bihurtzen da eta helio ahotsarekin hitz egiten du. Lehorrean aurki dezakegun globo arrain baten antzekoa da.



## MAISU JAKINTSU

Iratxoen artean zaharrena da. Orojakilea eta sarkastikoa, nekatuta bizi dela dirudi. Lasaia eta pazientzia handikoa. Eta noski, izenak dion bezela jakintsua. Etenaldi luzeekin kadentziaz hitz egiten du eta, batzuetan, oroimena galtzen du bat-batean, esan berri duena ahaztu egiten zaio eta batzuetan barregarria da. Esperientzia da bere ezaugarriarik onena eta etorkizuna iragartzeko trebetasun berezia du. Horretarako, harentzat harri magikoa den orakulura jotzen du.

Orakulua milaka urteko izeiaren barnean dago, non iratxo jakintsua bizi den. Orakulua harri berde garden bat da, glifoak eta grabatuak dituen zirkulu baten erdian dagoen esmeralda bat bezalakoa. Iratxo jakintsuak eskatuta baino ez du erantzuten. Martxan jartzen denean, sorta berde batekin argitzen da, zeinari esker holograma moduan loturarik gabeko irudiak ikus baitaitezke, eta horien esanahia iratxo jakintsuak bakarrik baitaki partzialki interpretatzen. Normalean bere erantzunak argitu beharreko enigmak izaten dira. Hur da bere dizipulua, baina askotan iratxo jakintsua bere onetik ateratzea baino ez du lortzen.





## PAGO

Pago iratxo marroi berdexka bat da, pago batetik datorrena. Lotsatia eta isila da. Ez zaio gustatzen ekimena eramatea, eta nahiago du bigarren maila batean mantendu. Nekatuta bizi den pertsonaia. Nahiko pesimista, urduri dago beti. Lasai eta seguru sentitzen den une bakarra, bere baratzean lanean dagoenean izan ohi da.



# LEHIAKETAREN OINARRIAK

## 1.- LEHIAKETAREN XEDE ETA ZERGATIA:

«Kili-Kili» lehiaketak lotura du familiei bideratuta dagoen Gookapi euskaraz kanal interaktiboarekin. Euskaraz era original eta dibertigarrian hezi eta jolasteko aukera bat izan nahi dugu. Eta zentzu horretan bat egiten dugu Ehigeren helburuekin eta lehiaketa hau elkarrekin plazaratzen dugu.

Lehiaketa honek haurren sormena bultzatzea, euskaraz aritzea eta ondo pasatzea du helburu.

## 2- “Kili-Kili” MARRAZKI LEHIAKETAREN DEFINIZIOA:

Gookapik “Iratxoen kontu sekretuak” deituko den ipuin bilduma bat argitaratzeko asmoa du. Kili-Kili marrazki lehiaketak bilduma horretan argitaratuko den kontu baten marrazkiak umeez beraiek egitea bilatzen du. Irudi horiei gero errealitate areagotua gainjarriko diegu. Ipuin horren izenburua Kili-Kili izango da.

Horretarako, eskoletara Ehigeren bitartez material batzuk bideratuko dira PDF formatuan. Horietako bat Kili-Kili ipuina izango da. Ipuin honek umeentzako beste edozein konturen antza izango du; ezberdintasun nabari batekin, marrazkiak izango ditu faltan. Testuarekin batera, ipuinean zehar 4 karratu zuri egongo dira. Karratu horietan umeez ipuineko pasarteak irudikatu ahalko dituzte.

Lehiaketan Euskal Eskola Publiko guztietako ikasleek parte hartu dezakete, 3 urtetik 12 urte bitartekoek. Lehiaketan 4 kategoria bereiziko dira. Kategoria bakoitzak karratu konkretu batean parte hartu ahalko du.

### ***Kategoriak:***

Haur hezkuntza: lehenengo karratua.

1-2 mailak: bigarren karratua.

3-4 mailak: hirugarren karratua.

5-6 mailak: laugarren karratua.

Nahi adina marrazki bidali daitezke, baina kategoria bakoitzeko irabazle bat egongo da soilik. Lehiaketaren epaileek hautatuko dute kategoria bakoitzeko marrazki irabazlea.

## 3.- LANAK BALIOESTEKO KONTUAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK:

Epaileek hurrengo irizpideak hartuko dituzte kontuan irabazleak hautatzeko:

- a) Marrazkien originaltasuna.
- b) Marrazkien koherentzia testuarekiko.
- c) Marrazkien txukuntasuna eta itxura.

#### 4.- NORK ETA NOLA PARTE HAR DEZAKEEN:

- a) Ehigeren bitartez, Euskal Eskola Publikoko ikasleek, bakoitzak dagokion kategorian.
- Haur hezkuntza: lehenengo karratua.
  - 1-2 mailak: bigarren karratua.
  - 3-4 mailak: hirugarren karratua.
  - 5-6 mailak: laugarren karratua.
- b) Izena ematean, parte-hartzailearen datu hauek adieraziko dira: helbide elektronikoa, ikaslearen maila, haurraren izen-abizenak (ez da beharrezkoa), helduaren izen-abizenak, kontakturako telefono zenbakia. (parte hartzeko orriaren estekan bete daitezke).
- c) b) atalean eskatutako daturen bat falta bada, ez du lehiaketan parte hartuko. Emandako datu guztiak egiazkoak izan beharko dira. Pertsonaren bat datu faltsuekin erregistratzen bada, parte-hartzea ez da kontuan hartuko.
- d) Bete esteka honetako inprimakia eta onartu lehiaketaren oinarriak:

<https://bit.ly/kili-kili>

- Inkestan eskatzen diren datuak bete ondoren, igo marrazkiak eta “Bidali” botoia klikatu. Inkesta ongi bidali denaren mezu bat azaldu behar zaizu.
- Marrazkia entregatu ondoren, lehiaketaren idazkaritza teknikoak oinarri hauetan bildutako betebeharrak guztiak betetzen direla egiaztatuko du.

#### 5.- PROIEKTUEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Formatua:

-Marrazkiak formatu digitalean bidali behar dira, eskaneatu edota hauen argazkia bidali daiteke.

Onartutako formatuak: JPEG.

Gehienezko tamaina guztira: 100 MB.

Koherentzia:

Marrazkiak Kili-Kili liburuaren testuarekin bat etorri behar dira. Proposamenaren edukiak liburuaren testuarekin zerikusirik ez badu edo hori lortzearen kontrakoa edo kalterako bada, lehiaketaren antolakuntzak ez du onartuko. Erabakia posta elektronikoz jakinaraziko zaie parte-hartzaileei.

#### 6.- LEHIAKETAREN EPEAK:

«Kili-Kili» lehiaketak fase hauek izango ditu:

- Izena ematea eta parte hartzea: maiatzaren 9tik ekainaren 12ra arte.
- Epaimahaiaren balioespena: ekainaren 12tik Ekainaren 21a arte.
- Irabazleak iragartzea: ekainaren 22an.
- Sari-banaketa: abenduaren 7an izango da Durangoko azokan.

2022ko ekainaren 22an lehiaketaren irabazleen berri emango da. Horiei aitaren, amaren edo legezko tutorearen helbide elektronikoaren edota ikastetxearen bidez jakinaraziko zaie. Jakinarazpenaren unetik, irabazle bakoitzak bost egun baliodun izango ditu saria onartzeko. Irabazlearekin harremanetan jartzeko aukerarik egongo ez balitz edo horrek sariari uko egingo balio, Gookapiko zuzendaritzak saria askatasunez xedatu ahalko du. Irabazleak izena ematean adierazitako datuen egiazkotasuna frogatu ezin badu, saria jasotzeko eskubidea galduko du. Oinarri hauetan ezarritako parte hartzeko betekizunak guztiz betetzen dituzten pertsona fisikoek bakarrik jaso ahalko dituzte sariak.

Sari-banaketa 2022ko abenduan egingo da, Durangoko Azokan. Gookapiko zuzendaritzak aukera du eguna aldatzeko eta, kasu horretan, saridunei aurretiaz jakinaraziko zaie data berria.

## **7.- SARIA:**

Kategoria bakoitzeko irabazle bat dago, beraz 4 irabazle egongo dira guztira.

Saria berbera izango da kategoria guztietan:

- Marrazkiaren argitalpena liburuan.
- Errealitate Areagotudun liburuaren bi ale fisiko.
- Iratxoen kamiseta musikatu bat.

## **8.- BALIOESPENA ETA EPAIMAHAIA:**

Epaimahaia Gookapiko arduradunek osatuko dute eta bere erabakiak apelaezinak dira.

## **9.- EGILE-ESKUBIDEAK:**

Lehiaketarako marrazkiak sortu dituzten egileek antolakuntzari lagako dizkiote lanak banatzeko eta komunikatzeko eskubideak, modu mugagabea eta eskusiboan, mundu osorako. Halaber, horretarako, ez dute inolako mugarik izango, ez osorik ez zati batean, eta edozein bitartekoren bidez agin ahalko dute.

## **10.- DATU PERTSONALAK:**

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 (Maiatzaren 26ko 7/2021) Lege Organikoa («DBLO») betez, Gookapiko Zuzendaritzak parte-hartzaileei eta haien legezko ordezkariak jakinarazten die emandako datuak «Kili-Kili Lehiaketa» izeneko fitxategian gordeko direla, lehiaketako parte-hartzea eta sariak kudeatzeko helburuarekin, baita beharrezko harremana mantentzeko helburuarekin ere, bitarteko elektronikoak barne. Gookapiko Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna.

Parte-hartzaileek eta haien legezko ordezkariak, DBLOn ezarritako gaietan, haien datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzte; horretarako, Gookapiren zuzendaritzarekin harremanetan jarri ahal izango dira helbide elektroniko honetan: ***komunikazioagookapi@gmail.com***.